

Futbola

Eibarrek Leganes indartsua izango du aurkari

■ Alonsok ezingo ditu Aldalur, Martinez, Arenaza eta Sarasua zelairatu

17.30 (ETB-1)

LEGANES / EIBAR

Duque / Alonso

13 Emilio	1 Garmendia
2 Oscar	2 Aginaga
3 Villoria	7 Arriola
5 Mesas	4 Carmona
18 Barbero	3 Sarriegi
10 Alfredo	18 Goio
11 Miguel Angel	8 Artetxe
6 Tocho	10 Bixente
17 Gerardo	17 Cortina
20 Rodri	15 Jandro
21 Melgar	21 Garitano

Epailea:

Pinar Martinez

Zelaia:

Municipal

EIBAR burumakur dabil azkenaldian, hiru partidu galdu baititu jarraian. Taldeko zuzendaritza astelehenean bildu zen, besteak beste entrena-tzaileak jarraituko duen eztabaidatzeko asmoz. Erabaki zutenaren arabera, Periko Alonsok ez du taldea utziko. Gaur zazpigarren doan Leganes izango du aurkari. Leganes kanpoan finago dabil etxean baino. Alonsok, Aldalur, Martinez, Arenaza eta Sarasuaren bajak ditu. Leganesek, berriz, Belenguer eta Javi Lopezek.

Ana Ramos, Eibar

Partidu oso garrantzitsua du Sestaok etxean

17.30

SESTAO / GETAFE

Ziarreta / Gonzalez

16 Lafuente	1 Caballero
4 Bastida	25 Lucio
12 Arce	5 Lopez Martin
18 Manu	3 Angelin
18 Ipiña	27 Jaime
7 Olaeta	26 Rafita
8 Solaun	7 Exposito
5 Azkoiti	16 Frank
22 Gonzalez	8 Montero
11 Gorka	19 Antonio
17 Juanjo	11 Patrovic

Epailea:

Perez Burrul

Zelaia:

Las Llanas

PARTIDU garrantzitsua jokatuko dute Sestao eta Getafe Las Llanas futbol zelaian, hiru puntuak garrantzi handikoak baitira bi taldeentzat. Sestaoan baja dira Novoa, Acosta eta Docando. Getafen, Stojilkovic goleatzailea etxean geratu da.

Ramon Basaldua, Bilbo

Eskubaloia

San Antonio aurtengo lehen garaipenaren bila Arrosadian

Nafarrek Guadalajararen kontra jokatuko dute (18.30)

Nafarroako Lagun Aro San Antonio taldeak Avirresa Guadalajara hartuko du gaur Arrosadian (18.30), bi puntuak eskuratu beharra duela. Zupo Ekisoainek zuzentzen duen zazpikoak puntu bakarra eskuratu du urtea hasi zenetik, eta momentu honetan promozio postuetan sartuta dago bete-betean.

Pello Aiestaran / Donostia

ASOBAL Ligako 24. jardunaldi hau oso garrantzitsua izan daiteke Lagun Aro San Antonioren-tzat. Izan ere, behingoz bolada txarra bukatu eta azken txanpari beste begi batzuekin begiratzeko aukera eman diezairoke. Iruidarrak sailkapeneko 13. tokian daude, Cangas de Morrazo (bi puntu gehiago ditu) eta Ciudad Realen (hiru puntu gehiago) atzetik. Cangasek gaur Barcelonaren kontra jokatuko du; beraz, ia ziurtasun osoz esan daiteke galdu egingo duela. Ciudad Realek, berriz, Teucroren kontra jokatuko du, eta ez litzateke harritzeko izango porrot egitea.

Gauzak horrela, gaur irabaztea aurrerapauso handia litzateke San Antonioren-tzat. Cangas harri-patu egingo luke sailkapenean, eta Ciudad Real taldea asko hurbilduko litzateke. Zupo Ekisoainen mutilek amaiera arte duten egutegia kontuan hartuta -Barakaldo, Valencia, Teucro, Conquense, Granollers eta Cangas- baikor izateko arrazoirik badago. Baina horretarako, gaur Guadalajararen aurka irabazi beharra dago. Azken porroten



Ricardo Marinek beteko du Perunicicen tokia Bidasoako talde titularrean.

EDURNE KOCH

ostean, berriro irabazteko moduan daudela sinetsi behar dute nafarrek, eta konfiantza horrekin denboraldiko helburu bakarrari (promoziotik ihes egitea) gogo guztiarekin heldu.

Elgorriaga Bidasoa Leonen ariko da arazoei aurre egiteko

Elgorriaga Bidasoak ere gaur jokatuko du, Ademar Leonen kantuan (18.45). Iruidarrek azkenaldiko gorakadan jarraitu eta beste bi puntu lortu nahi dituzte, sailkapeneko bigarren postura hurbiltzen saiatzeko. Baina lana ez da erraza gertatuko. Ademar Leon denboraldi polita egiten ari da, eta bosgarren postuan dago momentu honetan. Manolo Cadé-

nasen gizonak gol bakar batez galdu zuten Artalekun (22-21), eta gaur pentsatzekoa da errebantxa hartu nahiko dutela.

Gainera, Elgorriaga Bidasoak Nenad Perunicic eta Javier Barreto gabe jokatuko du. Eta biak lan bikaina egiten ari ziren azken partiduetan. Arazoak arazo, Bidaso Ademar Leon baino gehiago da momentu honetan, eta kantxa gainean bere kalitatea erakutsi behar du. Juantxo Villarreak hamabi gizon eraman ditu Leonera: Nuñez eta Aginagalde (atezainak), David Rodriguez, De la Haza, Marin, Ordoñez eta Kisselev (lehen lerrokoak) eta Angel Fernandez, Andreu, Rubiño, Pujol eta Etxaburu (bigarren lerrokoak). X

Txirrindularitza

Valentziako Itzulia guztiz erabakita

■ Jalabertek atzean utzi zituen aurkari guztiak Rousek irabazitako etapan

Erredakzioa / Donostia

DIDIER ROUS txirrindulari frantziarrak eskuratu zuen garaipena Valentziako Itzulia laugarren etapan, ONCeren baimenarekin. Gan etxekoa Laurent Jalabert, Mariano Rojas eta Iñigo Cuestarekin batera ailegatu zen helmugara ihes eginda, eta talde horikoek ez zioten inolako trabarik jarri Rousi. Horrela, frantziarrak denboraldiko lehen garaipena lortu ahal izan zuen.

Atzokoa Valentziako Itzuliko etapa nagusia zen, eta espero bezala aurreko egunetan baino borroka handiagoa egon zen faboritoen artean. Gehien borrokatu zena Lance Armstrong es-

tatubatuarra izan zen. Motorlako sailkapen nagusian Jalabert liderrarengandik bi segundo eskasera zegoen, eta atzoko azken mendatea aprobetxatu nahi izan zuen frantziarrari aurre hartzeko. Ez zuen lortu ordea. Jaitsieran, eta bakarrik Jalabertek jarraitzen zionean, erori egin zen eta hortxe galdu zituen aukera guztiak. Jalabertek atzerago zetorren Iñigo Cuestari itxaron eta bieki helmugarantz jo zuten. Mariano Rojas eta Didier Rousek helmugatik hamar kilometroa egin zuten bat aurreko biekin.

Lau txirrindulariak ondo sartu ziren errelebutan, eta aurrerata ailegatzeko ez zuten inolako arazorik izan. Laurent Jalabertek

esprintean erraz irabaziko zuela zirudien, baina ONCEkoak ez zion Didier Rousi jarraitu ere egin honek esprinta hasi zuenean. Dagoeneko Valentziako Itzulia erabakita zuen, eta etorkizunari begira detaile bat izatea hobe zela pentsatuko zuen Jalabertek.

Het Volk eta Pantalika Saria jokatuko dira gaur

Denboraldia pixkanaka berotzen ari da, eta gaur bi proba gehiago jokatuko dira: Het Volk eta Pantalika Saria. Het Volk-ekin Belgikako denboraldi ofiziala hasiko da. Gainera, denboraldiko lehen klasiko aipagarria izaten da urtero. Pantalika Sariak, berriz, 1.4 kategorian dauka. X

laburrean

FUTBOLA

■ Zaragozan jokatuko da Espainiako Koparen finala

BARCELONAK eta Atletico Madridek apirilaren 10ean Zaragozan jokatuko dute finala hau. Barcelonak asteazkenean Espanyol kanporatu ondoren, beste finalerdia prebisioak bete ziren eta Atletico de Madrid saikatu otegunean finalera itzulerako partiduan 1-2 galdu bazuten ere Valenciaren aurka. Bi taldeek behin jokatu dute elkarren aurka Koparen finala 1926an izan zen eta Barcelonak 3-2 irabazi zuen. X

IZOTZ HOCKEYA

■ La Navarra-Txurik titulurako 'play-off'-ari ekingo dio gaur

DONOSTIAKO taldeak Barcelonaren aurka jokatuko du gaur titulurako play-off-aren lehen partidua Donostian 20.45etan. Kanporaketa lehen partidura jokatuko da. La Navarra-Txuri izan da Liga erregularrako talderik onena finalerdietan CAI-Jaca espainiar bazuen ere, azkenean Barcelona lona izan da bere arerioa. X

E S K I A

■ Picabo Streetek irabazi du jaitsierako Munduko Kopa

ATZO Norvegiako Narvik hirian korritu zen denboraldiko azkenaurko jaitsieran Picabogarren izan ondoren ziurtatu du Picabo Streetek aurtengo titulua. Atzo garaipena Valerija Zelenskaja errusiarrarentzat izan zen: 1.39.22. Streetek 1.39.44 egin zuen. Jaitsierako titulua estatutu-tuarrarentzat izan badu Munduko Kopako sailkapen nagusian Katja Seizinger almaniarra da liderra 1.18.11 punturekin. Street laugarrena da 837 punturekin. X

SASKIBALOIA

■ Hakeem Olajuwon (42 puntu) bikain Sixersen kontra

HAKEEM OLAJUWON pibotero tak sekulako neurketa jokatuz zuen NBako azken jardunaldian, 42 puntu egin zizkion Philadelphia Sixersi. Housatonek irabazi zuen partidua 109-95. Orlando Magic taldeak garaipen erraz samaratu lortu zuen. 98-114 gaitzatu zuen New Jersey Nets. Orlando doko Shaquille O'Neal piboteroak 33 puntu eta Dennis Scott hegalek 30. Jardunaldiko beste emaitzak: Indiana 94-Golden 85; Milwaukee 86-Cleveland 95; Spurtz 120-Toronto 95; Denver 120-Dallas 137; Clipperton 122-Sacramento 110. X